



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Francisco Javier Bereau Miquelarena jauna
José María Alzuri Vertiz jauna
Juana María Altxu Juanikorena andrea
Miren Ilarregi Belarra andrea
Pello Ariztegi Etxepeteleku jauna
María Larretxea Etxeberria andrea
Ainhoa Bereau Alchu andrea

2019eko abenduaren 18an, 13:30etan, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Francisco Javier Bereau Miquelarena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

Bilkurari hasiera emanda, Alkateak zinegotzi kargua hartzeko bete beharreko araudiaren berri eman dio bilkurari. Udal eraketan parte hartu ez zuten zinegotziek (Miren Ilarregi Belarra, María Larretxea Etxeberria eta Ainhoa Bereau Alchu andreek hain zuzen ere) beraien kargua hartu ahal izateko, eta HAOLoren 195.2. eta AFEren 37.2 artikuluetan xedatutakoa betez, Adin Mahaia eratu da, ekitaldian dauden adinez zaharrenak eta gazteenak osatu dutena; alegia, José María Alzuri Vertiz jauna —mahaiburua— eta María Larretxea Etxeberria — mahaikidea—. Idazkaria, berriz, udalarena bera izanen da, hau da, Beñat Ripodas Beroiz jauna.

HAOLoren 108.8. artikuluan xedatutakoa betez, Adin Mahaia mahaiburuak galdera hau egin die zinegotziei banan banan: *“zure kontzientzia eta ohoregatik zin egiten edo promes egiten duzu zinegotzi izateak ezartzen dizkizun betebeharrak Erregearekiko leialtasunez zintzoki beteko dituzula, eta Konstituzioa Estatuaren arau nagusi bezala zaindu eta zainaraziko duzula?”* Zinegotzi guztiek promes egin dute zera esanez: *“legeak hala beharturik, promes egiten dut, ez nire borondatearen borondatez”*.

1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez onartu da akta.**

2. BILEREN ALDIZKOTASUNA.

Ohiko bilkurak egiteko aldizkotasunari buruz eztabaidatu da eta **aho batez erabaki da** bi hilabete behin egitea, **hilabete bakoitietan, lehendabiziko hamabostaldian.**

3. KOMISIOAK.

Jarraian, aipatzen diren gaietaz arduratuko diren zinegotziak izendatu dituzte aho batez:

Hirigintza: Juana María Altxu Juanikorena, Miren Ilarregi Belarra, María Larretxea Etxeberria eta Ainhoa Bereau Alchu.

Mendiak: José María Alzuri Vertiz eta Pello Ariztegi Etxepeteleku.

Euskara, Kultura eta Gazteria: Juana María Altxu Juanikorena, Miren Ilarregi Belarra, María Larretxea Etxeberria eta Ainhoa Bereau Alchu.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Hezkuntza: Miren Ilarregi Belarra eta María Larretxea Etxeberria.

Gizarte zerbitzuak, inmigrazioa eta emakumea: Pello Ariztegi Etxepeteleku eta Ainhoa Bereau Alchu.

Osasuna: Miren Ilarregi Belarra eta María Larretxea Etxeberria.

Alkateak parte hartuko du batzorde guztietan.

4. ORDEZKAPENAK.

Ondoren, Iturengo Udala ordezkatzeko duten zinegotziak izendatu dira aho batez:

Malerrekako Mankomunitatea:

- Batzar Orokorra:

Ordezkariak: Francisco Javier Bereau Miquelarena.

Ordezkoak: José María Alzuri Vertiz.

- Goi ur-hornidura kudeatzeko Erakunde Autonomoa:

Ordezkaria: Francisco Javier Bereau Miquelarena.

Ordezkoa: José María Alzuri Vertiz.

- Euskara Batzordea: Juana María Altxu Juanikorena, María Larretxea Etxeberria eta Ainhoa Bereau Alchu

- Zaborren Batzordea: María Larretxea Etxeberria eta Ainhoa Bereau Alchu.

- Gizarte Zerbitzuen Batzordea: Miren Ilarregi Belarra eta Pello Ariztegi Etxepeteleku

- Babes Ofizialeko Etxebizitzien Patronatua: Francisco Javier Bereau Miquelarena, Miren Ilarregi Belarra eta Pello Ariztegi Etxepeteleku.

Cederna-Garalur, Malerrekako Agenda 21 eta Baztan-Bidasoa Eskualdean turismoaren garapena:

Ordezkaria: María Larretxea Etxeberria.

Ordezkoa: Ainhoa Bereau Alchu.

5. ALKATEORDEZKOA.

Alkateak ebazpen bidez **José María Alzuri Vértiz jauna alkateordezkotzat izendatuko duela** aditzera eman du eta Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

6. ALKATE ETA ZINEGOTZIEN ORDAINSARIAK.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 75. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eta toki ogasunek transferentzia arruntan bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2018eko eta 2019ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen 18/2017 Foru Legearen 13. artikulua kontutan hartuz, aho batez erabaki da:

1. Alkatearendako urtean 5.051,48 euroko kalte-ordaina edo ordaina ezartzea, karguaren betebeharrak betetzeko, hau da: Herriko Etxera joateagatik eta osoko bilkuretan, organo kolegiatuen bilkuretan eta bileretan parte hartzeagatik. Diru kopuru horri PFEZko atxikipena ezarriko zaio.

2. Alkateordezkoarendako urtean 3.367,65 euroko kalte-ordaina edo ordaina ezartzea, karguaren betebeharrak betetzeko, hau da: alkatea ordezkatzegatik eta osoko bilkuretan eta organo kolegiatuen bilkuretan parte hartzeagatik. Diru kopuru horri PFEZko atxikipena ezarriko zaio.

3. Zinegotziendako urtean 1.683,82 euroko kalte-ordaina edo ordaina ezartzea, karguaren betebeharrak betetzeko, hau da: osoko bilkuretan eta organo kolegiatuen bilkuretan parte hartzeagatik. Diru kopuru horri PFEZko atxikipena ezarriko zaio.

4. Zenbateko horiek eguneratuz joango dira, Nafarroako Gobernuak Udaleko kideen gastuetarako ematen duen diru-laguntza handitu ahalean.

5. Orobat, beren karguan aritzean dieta eta joan-etorriengatik sortzen diren gastuak ordainduko zaizkie Udalbatzako kideei, horiek frogatu eta behar diren ordainagiriak aurkeztu ondano.

6. Erabaki honek atzera eragina izanen du, 2019eko abenduaren 7tik aitzina.

7. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren Iragarki-taulan argitaratzea.

7. HERRILUR DESAFEKZIOA: UR HODIA IGAROTZEKO ESKAERA.

Udalburuak gaia azaldu du. Ramón Maguregui jaunak, Juan Carlos Gamarra jaunak eta Loreto Manzan andreak Udalean haien etxeetako uren hodiak Udalarenak diren lurzatietatik igarotzeko eskaera egin zuten. Udalbatza jardunean zegoen eina eta 2568/1986 Errege dekretuaren 39.2. artikulua kontuan hartuta, Nafarroako Toki Administrazioetako 6/1990 legearen 140. artikuluekin batera, Udalburuak gaia mahaiaren gainean utzi zuen. Izan ere, eta Udalbatza jardunean egonda, ezin dira gehiengo kalifikatuaz onartu behar ziren akordiorik hartu.

Udalbatza berria eraturik dagoela, gaia berriro aztertzea erabaki zen eta mahaiaren gainean jartzen da herrilurra den lurzatiaren desafektazioa, eskatzaileek nahi dituen ur hodiak luperratzen utzi ahal izateko. Gaia eztabaidatu ondoren Udalbatzak aho batez hurrengoa erabaki du:

1.- Eskaera onartzea eta behar diren hasierako tramiteei hasiera ematea.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

2.- Zehazki Nafar Gobernuko sailekin eta eskatzaileekin desafekzioaren aurretik beharrezkoak diren tramiteei hasiera ematea.

3.- Akordio hau interesatuei jakinaraztea.

8. HONDAKIN ESPEDIENTEA 2. POLIGONOKO 528. LURZATIA.

Urdaxeko SEPRONA-k azaroaren 15ean egindako salaketa jaso zen Udal honetan. Salaketa horretan Francisco Javier Alchu Iparraguirre jaunak, Udalenarena den 2. poligonoko 528. lurzatian debekaturik dauden hondakinak pilatzen ari zituela biltzen zen, eta gertakariak azaldu ondoren udala 39/2015. legearen arabera, beharrezkoa den espedientea abiarazteko agindu.

Udalbatzak egoera aztertu eta gaiaren inguruan eztabaidatu ondoren, aho batez hurrengo erabaki du:

1.- Espedeinteari hasiera eman aurretik 15 eguneko epea ematea salatua izan den bizilagunari, bere ustetan aintzat hartu behar diren beste gertakari edo baldintzak aurkezteko.

2.- Akordio hau interesatuari jakinaraztea.

9. ESKAERAK.

Ez dago eskaerarik.

10. ALKATE EBAZPENAK.

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (38/2019. ebazpenetik 41/2019. ebazpenera) eta Udalbatza **jakinaren gainean gelditu da.**

11. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOAK.

Ez da herriko gaien inguruan ezer aipatu.

12. GALDE ESKEAK.

Ez dago galde eskerik.

Eta bertzerik ezean, 14:50ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.